

## **2008-02-18ko EZOHIZKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko otsailaren hemezortzian, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: M. Jesus Otaño Zumeta andrea, Eugenio Loidi Garmendia jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

#### **AURREKO AKTAK ONARTZEA (08/01/08).**

2008ko urtarrilaren zortziko ohizko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

### **BIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO UDALEKO HIRIGINTZAKO ARAU SUBISIDIARIOEN TESTU BIRMOLDATUA.**

Arau Subsidiario berriak egiteko prozesuaren barruan, Informazio eta diagnostiko ikerlanak egin ondoren, aipatutako arauen Aurrerapen dokumentua idatzi zen eta jendaurrean jarri zen 20 egunez legeak agindu ala. Epe horretan hainbat eskakizun jaso ziren, 14 hain zuzen ere, ondorioz zenbait aldaketa eta doiketa lan egin beharra ikusi zelarik. Guztiaren ondoren, 2006ko urtarrilaren 24ko Osoko Bilkurak dokumentua onartu zuen.

Hurrengo, 2007ko otsailaren 14ko Osoko Bilkuran, behin behineko dokumentua onartzen da eta hau jendaurrean jartzerakoan, 15 alegazio aurkeztu ziren. Hauek aztertu eta kontuan izanik, Irurako Hirigintza Antolamenduko Arau Subsidiarioen behin behineko onarpenerako dokumentua prestatua izan zen.

2007ko uztailaren 26an, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak bere oniritzia eman zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, bere 2007ko azaroaren 13ko bilkuran erabaki zuen, Etenda uztea Irurako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena espedientearen behin betiko onarpena. Erabaki hau, hainbat arrazoietan oinarritzen zelarik.

Gipuzkoako Foru Aldundian hainbat bilera izan ondoren eta aholkularien hainbat txosten eta lanaren ondoren, beharrezkoak diren aldaketak gehitzen zaizkio dokumentuari, batetik, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, eta bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak berak emandako erizpideak jaso eta barneratzeko asmoz.

Guztia ikusita, Irurako Udalari dagozkion izapideak honekin amaitzen direla esan daiteke: Testu Bategina prestatua izan da, lehenik, espedienteko hainbat erabaki eta agiri bateratuz, eta bigarrenik, bai Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, bai eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak berak emandako erizpideak jaso eta barneratuz. Hots, dagokion erakunde erabakitzailleek beraien txostenetan adierazitako baldintzak eta erizpideak jarraituz, dokumentu bat onartu eta Foru Aldundiari bidaltzeko unea da, Udal Batzarrak bere onespena eman ondoren.

Aurrekoa ikusirik, idazkariaren eta udala aholkatzen duen txostenak kontuan izanik, udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

**Lehena.**- Behin behineko onarpena ematea, Irurako Udaleko Hirigintzako Arau Subsidiarioen Testu Birmoldatuari.

**Bigarrena.**- Dagozkion izapideei jarraipena emanez, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, behin betiko onarpenerako.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke Euskadiko Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Auzitarako Sailean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:10etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.